

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
IDATZIZKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA	151327	2023/2024
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
HAUR HEZKUNTZA	3	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Roberto Mielgo eta Jone Ozerinjauregi		

Justifikazioa

Hizkuntza idatziaren didaktika ikasgaiak bi modulu nagusi ditu, bakoitza 3 ECTSkoa. Alde batetik, ikasgaiak idatz-irakurketaren irakaskuntzari buruzko galderak eragiten dizkie maisu-maistra izango direnei. Idatz-irakurketaren jabekuntza prozesuan umeek egiten dituzten hipotesien bilakaera ezagutu eta arlo horretako edukiak aukeratu eta sekuentziatzeko irizpideak lantzen dira modulu honetan. Era berean, ikasketa egoerak diseinatzeko abilezia egokiak garatzen lagunduko dizkie ikasleei.

Bestalde, literaturak eta irakurketak eskolan duen garrantziari buruzko hausnarketa egingo da. Horretarako, testu eta liburuen azterketa eta iruzkina egingo da, proposamen didaktikoen azterketa, irakurketa praktikak bultzatuko dira gelan, eta jardueren diseinuan trebatuko dira ikasleak.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

G.O.1. PENTSAMENDU KRITIKOA: Gauzen arrazoiaren gainean eta norberaren eta inoren ideiak, ekintzak, balorazioak eta iritziak zertan oinarritzen diren galdetzeko buru joera du.

2. maila. Norbere iritziak eta besteenak koherentziaz aztertzea, eta norberarengan eta gizartean dituzten eraginak baloratzea.

Adierazleak:

- Uste eta balorazio propioak adierazten ditu.
- Kontuan hartzen ditu besteen usteak.
- Usteak barne irizpideen arabera (barneko oinarri, koherentzia, fidagarritasunaren arabera) ematen ditu.
- Erabaki eta proposamenen inplikazio praktikoak baloratzen ditu.
- Arazo edo proposamen bat duenean, pertsonen eskubideen arloko inplikazioak (duintasuna, autoestimua, etab.) identifikatzen ditu

Berriazko gaitasunak

1. Berriazko Gaitasuna: Ikaskuntza egoera egokiak diseinatu eta garatu ikaslea bere hasierako etapan hizkuntzaren kodeaz jabetu dadin, eta harengan literaturarekiko eta irakurketarekiko zaletasuna sustatzeko, pertsonak eta euren aniztasuna baloratu.

Adierazleak:

- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak diseinatzen ditu dibertsitate-testuinguruetan, ikasgelan benetan dauden baldintzak eta zailtasunak kontuan hartuta.
- Hausnarketa bultzatzen duten jarduerak antolatzen ditu, konpartitutako ikaskuntzarako beharrezkoak diren elkarreraginak dinamizatuz eta ikerketa bultzatuz.
- Haur Hezkuntzako ikasleentzat erakargarri eta atseginak diren testu eta liburuak aukeratzen ditu.
- Haur Hezkuntzako ikasleengan irakurzaletasuna suspertzeko jarduerak diseinatzen ditu.
- Aniztasuna ulertzeko eta baloratzeko talde-lana eta hausnarketa bideratzen duten jarduerak eragiten ditu.
- Literatura eta irakurketaren gustua garatzeko eta kultura aberastasuna baloratzeko IKT baliabideak egoki aukeratu eta erabiltzen ditu.

2. Berriazko Gaitasuna: Ebaluaketa planifikatu eta prozesua eta ikaskuntzak ebaluatu lortu nahi diren helburuekiko koherentziarekin, hala nola, erabilitako irakas-estrategiak, emaitzetatik eratorritako hobekuntzak txertatuz.

Adierazleak:

- Ebaluatu nahi denarekin koherenteki lotuta dagoen informazio zehatza eta adierazgarria biltzeko prozedurak eta tresnak aukeratzen ditu.
- Sustapenari dagozkion ebaluaketa-irizpideak erabiltzen ditu (gozamen maila, sormen eta irudimen indizeak, enpatia...).

3. Berriazko gaitasuna: Idatz-irakurketaren jabekuntza prozesuan umeek egiten dituzten hipotesiak eta horien bilakaera ezagutu.

Adierazleak:

- Idatz-irakurketaren jabekuntza aldiak bereizi eta identifikatzen ditu.
- Umeen produkzioak dagokien garapen unearen ezaugarriekin erlazionatu eta identifikatzen ditu.

4. Berriazko gaitasuna: Umeek idatz-irakurketaren sarreran egiten dituzten hipotesiak kontuan izanik, irakaskuntza edukiak aukeratu eta sekuentziatu.

Adierazleak:

- Idatz-irakurketaren jabekuntza aldiaren arabera, edukiak proposatzeko gai da.
- Idatz irakurketaren sarrera egiteko edukiak identifikatzen ditu gelako jardueretan.

5. Berriazko gaitasuna: Idatz-irakurketa irakasteko ikaskuntza-egoera egokiak diseinatu eta garatu, ikaskuntzarako eta garapenerako aurreikusitako helburuak lortzen laguntzeko eta umeen berezitasunei eta ezaugarri desberdinei erantzuteko.

Adierazleak:

- Idatz-irakurketa irakasteko egoerak diseinatzeko oinarri psikopedagogiko nagusiak kontuan hartzen ditu: umearen autonomia eta ahalegina, gelako aniztasuna, irakaslearen rola, motibazioa, eta umeen arteko lankidetzeta eta kooperazioa aprobetxatzea.
- Umeen aurrezagutzen diagnostikoa eta prozesuaren garapenaren behaketa sistematikoa erabiltzen ditu, proposamen didaktikoak ikasleen beharrian eta zailtasunetara egokitzeko.
- Idatz-irakurketa irakasteko komunikazio egoera errealak proposatzen ditu.
- Idatz-irakurketako metodologiak identifikatzen ditu, bakoitzaren abantailak eta desabantailak baloratuz.

6. Berriazko gaitasuna: Idatz-irakurketaren jabekuntzaren garapenean hurrek egiten dituzten aurrerapenak ebaluatzeko prozedura eta tresna egokiak diseinatu.

Adierazleak:

- Autoebaluazioa eta kideen behaketa erabiltzen ditu garapenean aurrerapenak egiten laguntzeko.
- Ebaluazio irizpideak formulatzen ditu idatz-irakurketaren jabekuntzaren aldien ezaugarriak kontuan izanik.



Garapen Iraunkorrerako Helburuen presentzia ikasgaien

Ikasgai honen bidez 4. GIHren helburu kognitiboak eta jokabideen eremuko helburuak landuko dira:



GJH 4: Kalitatezko Hezkuntza. OLS: Hezkuntza Ekologikoa

Ikaskuntza helburu kognitiboak:

- Ikasleak ezagutzen ditu hezkuntzaren sarbidean idazketa eta irakurketa arloan dauden desorekak eta horien arrazoi nagusiak
- Ikasleak ulertzen du hezkuntzak mundu iraunkorrago, zuzenago eta baketsuagoa sortzen lagun dezakeela, eta ahozko literaturak kultura elementu moduan gure gizartean eta umeen garapenean duen garrantziaz eta ezagutza horren transmisioaren garrantziaz jabetzen da

Jokabideen eremuko ikaskuntza helburua:

- Ikaslea gai da hezkuntzan genero-berdintasuna sustatzeko, ikasketa egoera egokiak diseinatuz eta garatuz, HHko haurrengan literaturarekiko eta irakurketarekiko zaletasuna sustatzeko eta pertsonak eta euren aniztasuna baloratzeko

Edukiak

Justifikazioan azaldu bezala, ikasgaia bi moduluk osatzen dute, Hizkuntzari eta Literaturari dagozkienak.

Literatura Modulua (3 ECTS)

1. Literatura eta irakurketa eskolan.
2. Liburu eta testuen aukeraketa.
3. Irakurzaletasunaren sustapenerako oinarriak.
4. Irakur-sustapena: bideak eta baliabideak.

Hizkuntza Modulua (3 ECTS)

1. Hizkuntza idatziaren ezaugarriak: Ahozkotik idatzira.
2. Idatz-irakurketaren sorrera eta garapena.
3. Ikasketa egoerak sortzen.
4. Idatz-irakurketaren sarrera egiteko metodoak.
5. Ebaluaketa.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

- Testuinguruan jartzen laguntzeko jarduerak: estrategia hau erabiliko da ikasgai honetan ikasleen esperientziak biltzeko, galdetegien bidez, umeen produkzioak aztertuz edo gelako elkarrizketa egoera desberdinetan.
- Hausnarketarako jarduerak: irakasleak galdera egokiak egingo ditu eta ikasketa egoera desberdinak behatzeko aukera emango du, gelan taldeko zein banakako hausnarketa bultzatzeko.
- Kontzeptualizatzeko jarduerak: irakaslearen azalpenak, irakurketak, kasu-azterketak izango dira, besteak beste, kontzeptualizazioa bultzatzeko estrategiak.
- Zuzeneko saiakuntzarako jarduera praktikoak: gelarako proposamenak diseinatzen trebatzeko jarduerak egingo dira, irakaslearen gidaritzarekin.
- Metodologiari buruzko aipamena

Ebaluazioa

Literatura Modulu: (%50)

- Testu eta liburuen azterketa eta iruzkina.
- Proposamen didaktikoen azterketa.
- Irakurketa praktikak gelan.
- Jarduera baten diseinua.

Hizkuntza Modulu: (%50)

- Irakurketen sintesiak
- Jardueren bilduma
- Ebaluazio plantilla diseinatu
- Jarduerak diseinatu
- Azterketa.

Dokumentazioa

- Aguera, Isabel (2005). *Animación a la lectura para niños*. Madril: Editorial CCS.
- Alario, M. C.; Alonso, M. C.; Robledo M. A.; Gómez, M. B. (2004). *Mi primer Portfolio. Portfolio Europeo de las Lenguas*. Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte de España.
- Alcobe, J. (1982). El método natural de lectoescritura y las teorías de Foucambert. *Cuadernos de Pedagogía*, 96, 18-21.
- Bellemger, L (1979). *Los métodos de lectura*. Bartzelona: Oikos-Tau.
- Galera Noguera, F. (2003). La lectoescritura: métodos y procesos. in Mendoza Fillola, A.; Briz Villanueva, E., *Didáctica de la lengua y la literatura para primaria*. Madril: Pearson Educación.
- Díez de Ulzurrun, A. (koor.) (2000). *Aprendizaje de la lectoescritura desde una perspectiva constructivista V.2. Actividades para realizar en el aula, lenguaje publicitario, periodístico, del cómic, popular, poético y de la correspondencia*. Bartzelona: Graó.
- Elkarlanean (2003). *Poesía lantzeko gida*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- Elkarlanean (2003). *Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Fernandez, R. (1997). "¿Hay que enseñar literatura?", *Primeras Noticias-Literatura Infantil y Juvenil*, 144/145, 28-33.
- Ferreiro, E (1986). "Psicogénesis de la escritura. In C. Coll (bil.). *Psicología genética y aprendizajes escolares*. Madril: Siglo XXI de España Editores.
- Ferreiro, E.; Teberosky, A. (1988). *Los sistemas de escritura en el desarrollo niño*. Mexico: Siglo XXI Editores.
- Ferreiro, E. (2012). La escritura antes de la letra. *CPU-e Revista de Investigación Educativa*, 3, 1-52.
- Fons Esteve, M. (2004). *Leer y escribir para vivir: alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en el aula*. Bartzelona: Grao.
- Garralón, A. (2005). *Historia portátil de la literatura infantil*. Madril: Anaya.
- Maruny, LL; Ministrál, M.; Miralles, M. (2000). Escribir y leer. Materiales curriculares para la enseñanza y el aprendizaje del lenguaje escrito. Vol. I-II-III. Madril: MEC – Edelvives.
- Molinari, C.; Corral, A (2008). *La escritura en la alfabetización inicial : Producir en grupos en la escuela y el jardín*. Memoria Académica. Buenos Aires: Dirección General de Cultura y Educación.
Disponible en: <http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/libros/pm.1078/pm.1078.pdf>
- Pennac, D. (1993). *Como una novela*. Bartzelona: Anagrama.
- Equipo de Educación Infantil del Colegio Público "Juan Bautista de Iruzun" de Peralta (2005). *El aprendizaje del lenguaje escrito en infantil*. Proyecto Atlante-Gobierno de Navarra.
- Rodari, Gianni (1996). *Gramática de la fantasía*. Bartzelona: Ed. del Bronce.
- UNESCO (2017). *Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible: objetivos de aprendizaje*. Paris: UNESCO

Publishing.

Schnewuly, B. (1988). *Le langage écrit chez l'enfant*. Paris: Delachaux et Niestlé.

Schnewuly, B (1992). La concepción vygotskiana del lenguaje escrito. *Cuadernos de Lengua & Educación*, 16, 49-60.

Smith C. B.; Dahl, K. L. (1989). *La enseñanza de la lectoescritura: un enfoque interactivo*. Madrid: Visor.

Teberosky, A. (1998). Enseñar a escribir de forma constructiva. *Aula de Innovación Educativa*, 71, 63-68.

Teberosky, A. (2009). La lectura desde la perspectiva constructivista. *Aula de Innovación Educativa*, 179, 21-23.

Teberosky, A.; Sepulveda, A., (2008). La literatura en la alfabetización inicial. *Actas del V Congreso Internacional de Psicología y Educación*. Universidad de Oviedo.

Wells, G. (1988). *Aprender a leer y escribir*. Barcelona: Laia.